

BIGARREN GAIA: ESTATU MODERNOA ESTATU KONSTITUZIONAL BEZALA. ESTATU LIBERALA ETA ESTATU SOZIALA.

1.KONSTITUZIONALISMO IRAULTZAILEAREN SORRERA.

XV. mendean lehen estatu modernoak sortu ziren, monarkia absolutuarekin, estatu absolutu bezala. Hori baino lehen inperioak, polisak... zeuden.

Estatu modernoaren ezaugarriak: subiranoa, independentea (proiektatzen da indarraren monopolioarekin), muga iraunkorrak dituzte, administrazio propioa eta armada propioa dute.

Konstituzionalismoa: konstituzioaren defentsa egiten duen mugimendu ideologikoa. Botere banaketaren defentsa eta oinarrizko eskubide batzuen defentsa (bizitza eskubidea, jabetza eskubidea, askatasun pertsonalaren eskubidea...).

Ez da berez mugimendu demokratiko bat.

Prozesu hau gorpuzten hasiko da XVII.mendetik aurrera eta aterako da konstituzioa izan behar dela boterearen muga eta eskubide batzuen mende.

Iraultza Ingelesa (1688-1689, Glorious revolution, Iraultza loriatsua), AEBetako iraultza (1776-1787) eta Frantziako iraultza (1789). Hiru mugimendu hauek monarkia absolutuaren aurkakoak izan ziren; klase sozial berri bat agertu zen (Burgesia). Ingalaterran monarkia absolutua inoiz egon ez arren, momentu batean erregeak parlamentuari uko egiten hasi zen monarkia absolutuarentzako joera hartzen, honen ondorioz eman zen iraultza. Frantzian eta AEBetan monarkia absolutua zegoen.

Ingalaterrako iraultzan dena nahastu zen; erlijioa, sistema... Garai hartan Ingalaterrako erregea katolikoa zen eta Ingalaterran anglikanoak (protestanteak) ziren biztanle gehienak.

Garai hartan kapitalismoa garatzen zegoen, burgesiaren defentsarekin, burgesia nobleziari lekua kentzen doa eta burgesia izango da garai hartako aldarrikapen berri guztiak garatuko dituen klase soziala.

Iraultza hauek trantsizio bat ekarri zuten, absolutismotik estatu liberalera; hau esan nahi du pasatuko dela estamentuz osatutako sistema batetik klase sozialetan antolatutako egitura batera. Berez ez da pribilegio formalik egongo; berez berdintasun formala ematen da baina ezberdintasun ekonomikoak mantendu egiten dira.

Estatu liberala estatu minimoa izango da, helburu nagusi bakarra izango duena; gizarte harreman pribatuak babestea; hau da, eskubide indibidual batzuk, jabetza pribatua eta pertsonen askatasuna.



2. ESTATU LIBERALEKO KONSTITUZIOA. DOKUMENTU POLITIKO IZATETIK ARAU JURIDIKO IZATERA.

Bi eredu nagusi daude: AEB eta Frantzia (Europa kontinentalean zabaltzen dena) eta irla bat (Ingalaterra).

AEB: 1787 konstituzioa. Hor sortzen da eredu bat non benetan konstituzioa arau balioa izango du. Inflexio une bat dago konstituzioari balore juridikoa emateko 1803an (Marbury vs Madison auzia). Epaiketa horretan lehen aldiz historian epaile batek esan zuen lege batek konstituzioaren aurka egiten bazuela ez zela lege hori aplikatuko. Europan konstituzioak dokumentu politikoak hutsak izan ziren XIX.mende osoan zehar.

INGALATERRAKO KONSTITUZIONALISMOA:

Ezaugarriak:

- Ez dago idatzizko konstituzioa (konstituzio ebolutiboa)
- “Common Law” tradizioa eta botere banaketa “Check & Balances”
- Legebiltzarraren subiranotasuna

Bilakaera:

- Karta Magna (1215): Errege boterearen mugaketa
- 2 gatazka: **a)** Errege/legebiltzarra subiranotasun nazionalaren gainean; **b)** Errege auzitegiak: Epaileak herritarren eskubideak defendatu behar dituzte.
- Iraultza loriatsua (1688) + “Bill of rights” onespina (1689): legearen nagusitasuna.
- Sufragio unibertsala 1928

AEBetako KONSTITUZIONALISMOA

Ezaugarriak:

- Giza homogeneitatea + erregearen eza
- Sistema federal + Errepublika presidentzialista
- "Check and balances" eta Ingalaterrako "Common Law"en eragina.
- Subiranotasunaren jabea: Herria
- Konstituzioaren nagusitasuna: "Judicial review of legislation" edo legeen konstituzionalitatearen kontrola.
- Higher law/ paramount law (konstituzioa beste legeen gainetik kokatzen da) ez zuten artikulatu mekanismo bat printzipioa praktikoki islatzeko, azkenean; Judicial review of legislation (1803)

Bilakaera:

- Kolonien independentzia: independentziaren aldarrikapena (1776) + konstituzioa (1787) + "Bill of rights" (1791)
- Marvoury vs Madison epaia (1803)


FRANTZIAKO KONSTITUZIONALISMOA

Ezaugarriak:

- Estatu absolutua (XVI-XVII) = Zuzenbidearen subiranotasuna vs Erregearen subiranotasuna.
- Ezin den ordezkatu subiranotasuna = Herri subiranotasuna eta botere eratuen gaineko mesfidantza
- Legearen nagusitasuna = Borondate orokorraren isladapena (Parlamentuaren subiranotasuna)
- Botereen banaketa = arazo teknikoa
- Botere exekutibo indartsua eta botere judiziala lege inperioaren menpe.
- Legearen nagusitasuna ematen da konstituzioari eman ordezkari. Legea ulertzen da nazioartean borondate orokorraren bezalakoa dela, eta horri ezin zaio mugarik jarri.
- Nazioari ordezkari bat ematea ez zen herritarrek zuten eskubide bat, funtzio bat baizik. Klaserik aberatsen esku eta kasu batzuetan ere hiritar ilustratuen esku.

Bilakaera:

- Iraultza Frantsesa gizon eta herritarren eskubideen aldarrikapena (1789)
- Frantziako konstituzioa (1791) eta ezegonkortasun konstituzionala.



AEBetako SISTEMA KONSTITUZIONALA (XIX.MENDEAN)

- Konstituzioen nagusitasun materiala (antolaketa politikoaz gain, oinarrizko eskubideak berme konstituzionala dute)
- Konstituzioaren Nagusitasuna: Konstituzioa arau nagusia da eta epaileak eta auzitegiak legeen konstituzionalitatea kontrolatzen dute.
- Epaile eta auzitegiak eskubideen interpretatzaileak dira. Epailea, legegilearengandik independentea.
- Jabego eskubidearen oinarritutako erregimena: (sufragioaren mugak)
- Eredu errepublikanoaren preferentzia.
- Konstituzio bakarra emendakin bidez aldatu daitekeena
- Jurisdikzio konstituzional difusoa

EUROPAKO SISTEMA KONSTITUZIONALA (XIX.MENDEAN)

- Ez dago konstituzioen nagusitasun materiala: (antolaketa politikoaren erregulazioa; eta eskubideak izendatzen ditu berme konstituzionalik gabe)
- Legearen zentralitatea: "Legea" garrantzi handien duen araua da parlamentuak ekoizten baitu. Konstituzioa beste edozein arau bezala hartzen da.
- Eskubideak legegilearen bitartez interpretatzen dira. Legegilea da konstituzioa interpretatzen duena, eta epailea legegilearen lanari lotuta dago.
- Izaera oligarkikoa duten eraentzak edo erregimenak (sufragioaren mugak)
- Monarkia konstituzionalaren lehentasuna
- Testu kontserbadore eta progresista tartekatzen dira. (Subiranotasun banatua eta subiranotasun nazionala.)
- Ez dago legeen konstituzionalitatearen kontrola.

3.ESTATU LIBERALAREN EZAUGARRIAK

Hiru dira estatu liberalaren ezaugarri nagusiak:

- **Berdintasun printzipioa:** Sistema zaharretan (inperioak, adibidez) eta monarkia absolutua zegoen herrialdeetan ez zegoen printzipio hau, baina, estatu liberalean berdintasuna zentralitatea hartzen du. Pertsona guztiak legearen aurrean berdinak gara eta ondorioz pertsona guztiok eskubide eta betebeharrak berberak izango ditugu. Berdintasun hori berdintasun formala da, ezberdintasun materiala (ekonomikoa, adibidez) sakonak zeuden. Berdintasun formal hori ere mugak zituen (erlatiboa zen); ez zegoen sufragio unibertsalik. AEBen esklabutza (zuriak eta beltzak), emakumeak diskriminatuak (sufragioz kanpo...)...
- **Askatasuna eta eskubide indibidualak:** Garai honetako eskubideak batez ere eskubide zibilak. Eskubide negatiboak izan ohi ziren; Estatuari oztoporik ez jartzea eskatzen diotenak (zerikusia du pertsonen harreman pribatuekin), bizitza eskubidea, askatasun eskubidea, adierazpen eta erlijio askatasuna... Eskubide positiboak; hezkuntzarako eskubidea, osasunarentzako eskubidea... ematen ez direnak dira. Estatuan ekintza positiboak egitea eskatu; estatu liberal gutxiengoa.
- **Zuzenbide estatua:** Estatua zuzenbidearen menpeko dagoen Estatu forma da. Hiritarrak eta botere organoak arau juridikoen menpe dagoen estatua da zuzenbide estatua. Zuzenbide estatuan legalitate printzipioa funtzionatzen du; hau da; botere erabiltzea ez da ahalmen diskrezionala (ezin da boterea nahieran erabili), boterea erabili behar da aurretik onetsi diren legeetan oinarrituz. Absolutismora ez itzultzeko. Zuzenbide estatua planteatzen da herritarrak babesteko botere organoen arbitrariotasunetatik; herritarrei babesa eta segurtasuna eman nahi zaie. Zuzenbide estatuaren ezaugarri nagusiak: **-Lege inperioaren printzipioa:** (legea estatuko beste ekintza guztien gainetik egon behar da), hierarkia printzipioaren indarra. **-Botere banaketaren printzipioa:** hau da; boterea banatu behar da oreka mantentzeko eta ez esku gutxien artean banatu, Montesquieu planteatu zuen botereen banaketa, berak esan zuen "botere guztia erregeari ematen bazaio monarkia absolutu hori degeneratzean tiranian bihurtuko zen; boterea talde txiki bati ematen bazaio Aristokrazia degeneratzean oligarkia bihurtuko zen" berak planteatuko duena ez da demokrazia. Esaten du estatuak monarkia izan behar zuela, aristokraziaren elementua (orden kamera) ere izan behar zuela, eta gero demokraziaren elementua (komunen kamera), sistema konposatua izan zedin edo behintzat ez sinplea.

Berak botere banaketa planteatuko du hiru zutabetan eta bakoitzak ondokoa kontrolatzen. “Check and balances” sistema asmatu Estatuaren hiru osagaien artean kontrola ezarriko dute. Montesquieu-ren eredu ez zegoen demokrazian soilik oinarrituta, beste iturri batzuetatik ere hartzen zituen.

Rousseau esan zuen “boteretsuek ez dute elkarri kontrolatu behar; herriak kontrolatu behar du botereak egiten dutena”.

Montesquieu-ri kritika: “Asmatu du sistema bat non boteretsuek abantaila duten. Herriak kontrolatu behar du botereen ekintzak”. Bi eredu hauetatik gailendu zen Montesquieu-rena izan zen

- **Administrazio legalitatea:** administrazioak aurrez emaniko legeen aurrean jokatu behar du. Horregatik administrazioak badu erregelamendu juridiko propioa bere funtzionamendua arautzen duena.
- **Oinarrizko eskubide eta eskubideen bermea:** Estatuak gizabanakoen bermea ziurtatu behar du. Oinarrizko eskubideen bermea jasotzen da baina berme hori oso partzial mugatua da.

4.ESTATU LIBERALETIK ESTATU SOZIALERA

XX.mende hasieran estatu liberala krisian sartzen da. Nork eta zer eramaten du estatu liberala krisira? Langileri mugimendua eramaten du krisira estatu liberala langileen gabezien aurka egitean (1848; manifestu komunista idatzi; Karl Marx eta Friederich Engels, langileriaren altzapenak Europako herri askotan).

Demokratizazioaren aldeko mugimendua aldaketa askoren ondorioz emakumeari ere sufragioa zabaltzen zaio. Estatu liberala ez-ikusiarrena egiten zuen biztanle askoren gabezien aurrean, eta hori gutxi ez balitz Lehen Mundu Gerra ematen da (Estatu liberala ez da gai herrialdeen arteko harreman baketsuak ziurtatzeko).

Estatu liberalaren **krisia** bi erremedio planteatu zituen: haustura eta erreforma.

Haustura: Bi bide: komunismoa eta faxismoa. Estatu liberalaren ereduarekin haustea.

- **Komunismoa:** Estatu liberala haustea ezkerretik, klase sozial gabeko estatua, iraultza soziala planteatuz, eredu sobietikoa, burgesia ez da nagusi izango, langile estatua, langileak boterean. Errusia, adibidez.



- **Faxismoa:** Estatu liberala haustura eskuinetik, ikuspegi erreakzionario batetik. (Hauteskunde demokratiko eza, prentsa askatasun eza, arrazakeria...). Italia, adibidez.



Erreforma: Estatu liberalaren gabeziak eta arazoak planteatzea eta erreformatzea.

- **Estatu soziala:** Liberal formakoa baina osagarriekin, Estatu liberalaren krisia gainditzeko erreforma bezala planteatzen da. Formalki II. Mundu Gerra ondoren, baina aurretik ezaugarriak zituzten forma estatalak. XX. Mendean 1929ko krisi ekonomikoa (erakusten du merkatua ez dela perfektua eta laguntza behar duela erregulatzeko) “la mano invisible”. Keynes planteatzen du protekzionismoa “Etorkizunean denok hilik egongo gara, arazoak orain konpondu behar ditugu” esaldiarekin, liberalen “Etorkizunean konponduko ditugu arazoak” esaldiari erantzun zuen. Ekonomia atzerantz doanean estatuak parte hartu behar du; interbenitu (Keynes-en interbentzionismoa). Estatu liberalak plazaratzen zituen eskubide guztiak bermatu nahi ditu estatu mota honek.

Politikoki estatu sozialaren agerpena azaltzen du komunismoaren etorrerak – kapitalismo humanizatuaren alde.

Estatu sozialaren ezaugarriak:

- 1- Liberalismoari kritika (ideologikoki) eta planteatzen da liberalismoaren ber pentsatzea; estatu abstentzionistaren aurrean estatu interbentzionista planteatuz.
- 2- Gizartearen ongizatea lortzeko estatuak bide sozialak planteatu behar ditu; langabetuetako laguntzak, osasuna, pentsioak...
- 3- Estatuak gizarte erregulatzailerik izango da.
- 4- Zeintzuk dira bere baloreak? Estatu sozialean benetan lortu nahi dira estatu liberalak aitortzen zituen eskubideak
- 5- BALOREAK: Gizabanako orori gutxienezko bizi maila bat bermatu behar zaio. Jabego pribatua ez da sakratua; interes orokorraren mesedetan dago. Segurtasun formalak segurtasun materialez lagunduta.
- 6- Estatu soziala estatu banatzailea da, helburu duena ezberdintasunak gutxitzea eta jendearen bizi-kalitatea hobetzea.
- 7- Estatu soziala zuzenbide estatu da.

Francis Fukuyama idazki famatu batean **historiaren amaiera** aldarrikatu zuen. Sistema ekonomiko kapitalista batean betirako biziko ginattekela estatu sistema liberala edo soziala izaten baina estatu liberala indartsuagoa izaten. “Gizakiak ez du topatuko sistema hoberik”.